

«Unibertsitateko ikerkuntzaren
oinarria gure eskuetan dago»



EUSKAL HERRIKO
AURRE-DOKTOREEN ASANBLADA
Lan-baldintza duinen
aldeko borroka EHUn

hirulka

128. zenbakia

2018ko maiatzaren 31tik ekainaren 6ra arte

«Orain zeri kantatzen diogun da gure kezka»

Rafa Rueda musikaria eta Gotzon Barandiaran idazlea ikastaroa ematen dabilta Sopelan, *Hitzen ahairea*. Zeri kantatzen diogu euskaldunok? izenburuagaz. Sortzaile bien ustean, «herri oso baten ikuspegia» adierazten du euskal kantagintzak.



ITZUBALTZETAKO NAGUSIEN ETXEA | 4 LEKUZ ALDATZEAREN KONTRA, BORROKAN

Romo Kultur Etxearen hirugarren solairua nagusien egunerokotasunerako lekuri onena ez dela deitoratu dute.

HIRUKIRA OLGETAN | 8-9 UMEENTZAKO DENBORA-PASAK

Hilabeteroko azken zenbakian ohi den legez, umeentzako jolasen atala topatuko duzue aldizkariaren erdiko orrialdeetan.

ERTIBIL | 10 ARTISTA GAZTEEN SORMENA BULTZATUZ

Uribe Kostako lau emakumek euren artelanak erakutsiko dituzte Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako erakusketa ibiltarian.

PEIO SANTA CRUZ ERRUGBI-JOKALARIA | 13 PARTIDA GEHIAGOGAZ GETXO EZ EI ZEN JAITSIKO

Paristik Seven Centraleko Brontzezko Kopa ekarri du Santa Cruzek. Bestalde, Getxo Rugbyren denboraldia analizatu du.

«Kanta-liburuxka baino gehiago herri oso baten ikuspegia eta

Ekainaren 22ra arte *Hitzen ahairea*. Zeri kantatzen diogu euskaldunok? ikastaroa emango dute Sopelan Rafa Rueda musikariak eta Gotzon Barandiaran idazleak. Besteak beste, euskal literaturaren zein musikagintzaren egoera kaskarrak ohartarazi dute.

TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Zelan murgildu zineten *Hitzen Ahairea* proiektuan? GOTZON BARANDIARAN: Rafa musikaria den eta ni idazlea naizen aldetik, oso barrutik bizi dugu kantagintzaren eta literaturaren egoera Euskal Herrian; askotan hausnartzen eta gogoeta egiten dugu egoeraz. Gainera, egon badago nahikoa adostasun kulturgintza-mailan, transmisioa dela daukagun gabeziak bat. Hau da, euskal kultura transmititzea ez dugula bermatzen, eta zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Idazleen eta musikarien arteko kantagintza aztertzen hasi ginen, horren inguruan saioen bat egiteko asmoz, ikastetxeetan. Euskal Idazleen Elkarteari eskaini genion egitasmoa aurrera ateratzeko aukera.

Beste hainbat idazlek bezala, idatzitako liburuen gaineko saioak egiten nituen nik; baina, esan bezala, interesgarriagoztat jo genuen literatura eta musika uztartzea. Ikastetxeetan hasi ginen egiten eta, handik gutxira, publiko ororentzat saio irekiak egiteko eskatu ziguten hainbatek. Orduan hasi ginen tailerrak egiten. Besteak beste, Udako Euskal Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean parte hartu genuen, eta ordutik lau urte dira batetik bestera gabiltzala, idazleen eta musikarien arteko kantagintza transmititzen.

Transmisioaz gainera, bestelako helbururik daukate ikastaroak? RAFA RUEDA: Berrez, ikastaroan, musika zuzenean ere bizi dela esango nuke nik; ez da paperetan edo diskoetan dauden gainean berba egitea bakarrik. Ildo horretan, parte-hartzaileen eta gure arteko interakzioa ere ematen dela esango nuke. Bestalde, euskal literaturaren eta musikaren transmisiotik aparte, hausnarketa izan daiteke beste helburuetariko bat; baita tailerretara joaten den jendearen iritzia jaso eta gizarteak literatura eta musika nola bizi dituzten neurtu ere. Gutxi gorabehera, hartu-eman bat sortzea datorrenaren eta gure artean. Izan ere, paperetik eta diskoetatik aparte, berba egitea eta bizitzea da helburuetako bat; zuzenean jotzen baititugu lantzen ditugun kantuak.

Zein da saioen funtzionamendua? G.B.: Ikastaro musikatu horrek aztertzen du idazleek eta kantugileek gure herria zelan kantatu zuten edo kantatzen duten. Euskal kantagintzatik abiatuta, idazle baten testua aurkezten dut nik. Horrez gainera, bere obran kokatzen dut. Horregaz lotuta, nik azalduko ditudan gaien ildotik, disko bat aukeratu eta hori ere aurkeztu egiten diegu parte-hartzaileei; Rafak zuzenean jotzen ditu abestiak. Esan daiteke, lantzen ditugun edukiez gainera, zuzeneko kontzertu bat ematen dugula. Saio bakoitzeko hamar bat kanta jotzen ditu Rafak. Gaur egun, ia-ia kontzertu bat da hori.

Zeri kantatzen diogu euskaldunok? G.B.: Oso garrantzitsua da azpimarratzea guk egiten ditugun saioetan beti egoten direla idazle baten testua eta musika. Guk kantagintzatat duguna abesti-multzoa baino gehiago da. Egin diguzun galderari erantzunez, XXI. mendera arte nahiko argi dago zeri kantatu diogun euskaldunok. Gure kezka da zeri kantatzen diogun orain eta hemen. Berbarako, garapena ikusten da 1960ko hamarkadatik gaur egunera arte: kantetan, letretan, herritarron kantagintzari eta, orokorrean, kulturgintzari ematen diogun garrantzian sumatu daiteke ebolumio hori. Orain, erantzuna da: «Bagabiltza!». Ez da orain dela 40 edo 50 urte bezala. Egoera asko aldatu da.

Zertan nabari daiteke egoeraren aldaketa hori? G.B.: Sasoi batean, Telesforo Monzonek, Pantxoa eta Peiok edota Ez Dok Hamahiruko kideek ematen zituzten kontzertuak ekitaldi masiboak izaten ziren; denok ikasten genituen abestiak buruz. Izan ere, kanta horiek eta haietan lantzen diren edukiak oso lotuta daude euskal identitateari:

Rafa Rueda
Mungia, 1972

II L.T. taldeko abeslari eta gitarrista legez eman zen ezagutzera 1990eko hamarkadan, batez ere *Hil da jainkoa* kantuari esker. Azken urteotan, metal-musika utzi eta pop-rockagaz lotutako bakarkako ibilbidea garatu du. 2015az geroztik, Lou Topet taldeko kidea da.



«Gaiago da gure kantagintza; eta historia dauzka barruan»



Gotzon Barandiaran
Larrabetzu, 1974

Euskal idazle eta kulturagilea. Literaturan egindako lanaz gainera, besteak beste, musikaren arloan, Bihotz Bakartien Klubaren (BBK) eta Katamalo taldearen partaide izan da. Halaber, *Ahotsenaren* koordinazio-lanak egin zituen Durangoko Azokaren lantaldean, 2011tik 2013 arte. *Gidarien okerra* liburua atera zuen duela hiru urte.

euskarari, lurraldeari, herriari, borrokari, justiziari... Gai abstraktu horien gainean abesten zuten. Sasoi batean oso argi zegoen mezu jakin batzuk zabaltzea zela helburua; eta, gainera, modu oso jakin batean: oso zuzena, entzuleak lehenengo kolpean barneratzeko. Gaur egun, oso ezberdin kantatzen da eta oso ezberdin idazten da. Bestalde, askoz musikari gehiago dago, aniztasun handiagoa dago eta publikoa askoz atomizatuagoa dago.

R.R.: Ados nago Gotzonegaz. Gaur egun, literatur zein musika-mailan gure herrian existitzen diren musikari edo idazle profesionalen erradiografia bat egiteko, begiratzeari baino ez dago. Oso jende gutxi dago idaztetik edo musika egitetik bizi daitekeena; ez dago hori bezain nabarmena den beste daturik egoera nolakoa den adierazteko. Gu ahalegintzen gabilta egoera analizatzen; izan ere, ez dago errezeta magikorik egoerari buelta emateko. Baina, behintzat, atzetik datorren jendea kontzienteago egiten ahalegintzen ari gara, kantagintzaren edo literaturaren, eta kasu konkretuenean, bien arteko uztarketaren egoeraz jabe daitezten.

Askotan ipintzen dugu adibidetzat zenbatetan jendeak kantatu izan dituen kantutak, benetan hausnartu barik zer dabilen kantatzen, are hizkuntza ulertuta. Literaturaren eta kantagintzaren egoeragaz ere horixe bera gertatzen da, askotan: musika-riak eta kantariak badauzkagu, baina benetan ipini gara pentsatzen zer baldintzatan bizi diren? Mundu bi horien egoera zein den mahai-gainean jarri nahi dugu.

Alderik ote dago ikastaroa leku batean edo bestean emanda? R.R.: Horren barruan, batez ere faktore bi daude, eta lehenengoa hizkuntza-maila da. Horri buruz, esan beharra dago, orokorrean, gerturatzen den jendeak interes handia duela kulturaz eta ez dagoela inongo oztoporik alde horretatik. Beharbada, umeakaz nabaritzen da gehiago zein lekutan egiten dugu ikastaroa. Ildo horretan, oso nabaria da hirigunearen eta herrixken arteko aldea: gaur egungo umeen bizimoduak eragina dauka gauzetan ipintzen duten arretan. Nabaritu izan dugu. Adibidez, herri txikietan, errazago egiten zaigu interakzioa lortzea umeakaz; hirietan kostatzen da gehiago, imajinatzen dut gain-estimulazioaren eraginez. Baina, orokorrean, oso gustura egon gara; ez dugu izan esperientzia desatsegirik.

Pentsatzen duzue proiektua abiatu zenutenean ipinitako helburuak lortzen zabilatzatela, lau urte hauetan? G.B.: Euskal kantagintza honen transmisioa lagun bik bakarrik egitea oso zaila da. Hala ere, konturatu egin gara zer-nolako erantzuna jaso dugun, balorazioetan edo tailerrak amaitu direnean; denetan oso positiboa izan da. Alde batetik, ikastetxeetan, Rafak esan duen bezala, ez dugu izan inolako esperientzia desatsegirik. Irakasleek eurek ere sarritan esaten digute ez dela erraza adin horretako gazteek ordubetez arreta mantentzea, baina zuzeneko musikagaz, azalpenakaz, Interneteko erreferentziakaz... lortu izan dugu. Helduakaz egiten gabiltzanean, berriz, askok esan digute eurentzat guk proposatzen diegun lotura egitea ez dela horren erraza.

Azken finean, egiten duguna da gertakari historiko batzuk kronologikoki hartzea eta, horren bitartez, Euskal Herriaren azalpena egiten dugu kantagintza horren bitartez; gaiak sasoi jakin bateko kantuakaz lotzen ditugu eta, horretaz gainera, horiek beste batzuegan zer eragin izan duten lotzen ahalegintzen gara. Hori dela eta, askok esaten digute, kontu asko daudela kantagintza horren inguruan, ez dela bazkarietarako eta afarietarako kantu-liburuxka bakarrik. Horren barruan dagoena da herri oso baten ikuspegi bat eta historia.

Parte-hartzaile batzuen sentsazioa izan daiteke zortzi edo hamar orduko ikastaroa asko dela, baina gure esperientziak dio oso arin pasatzen dela; askok esaten digute labur geratzen dela. Konturatzen dira idazlea eta musikaria lantzen dugunez, eduki asko dagoela lantzeko literaturaren, musikaren eta gizartearen esparruan.

Bestalde, gure helburuetako bat zen kezka bat konpartitzea: zer gertatzen dabilen kulturaragaz eta zer garapen egon den oso denbora gutxian, gure herrian; eta zer balio ematen diogun gaur egun kantagintzari. Guk horretan segitu gura dugu. Ildo horretan, Rafak musikari modura eta nik idazle modura nahi dugu ulertu gure inguruan zer gertatzen dabilen. Momentu bat heldu da jendeak ez duena irakurtzen, kontzertuetara ez dela joaten, diskorik ez duela erosten... Zer gertatzen dabil? Oso denbora gutxian gertatu da aldaketa. ◀

GETXO | Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxea

«Hurrengo belaunaldiek gure etxeaz goza dezaten gura dugu»

Lope de Vega kaleko 12. zenbakian dagoen eraikina ez botatzearen eta bertan nagusien etxea mantentzearen aldeko aldarrikapenak entzun daitezke auzoan. Askotariko protestak egin dituzte egunotan.

IKER RINCON MORENO ►

Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxea lekuz aldatzearen kontrako borroka pil-pilean dago egunotan. Aipatutako zerbitzua Lope de Vega kaleko 12. zenbakian lekututa dagoen eraikinean mantentzea gura du Ibar Nagusien Etxea elkarteko kideen gehiengoak, baita auzoko zein inguruetakoa nagusi ugari, baita gazte askok ere. Hori aldarrikatzeko itxialdi bat abiatu zuten duela aste bi, eta oraindino mantentzen dute protestaldia indarrean, auzoko askotariko gizon-emakumeen babesagaz; oposizioko alderdi denak eta udalerriko askotariko hainbat elkarte ere protestaldiaren alde agertu dira egunotan. Joan den barikuan, maiatzaren 25ean, gainera, milaka lagunek zentroa lekuz aldatzearen kontrako manifestazioa egin zuten Itzubaltzeta eta Areeta auzoetan barrena. Borroka luzea izaten ari da, eta horretan parte hartzen dabiltzan pertsona denen lana goraiatu dute Ibar Nagusien Etxea elkarteko kideek.

Getxoko Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) gogoratu du Romo Kultur Etxearen hirugarren solairura eroan diren zerbitzuak (podologia, masajea, gimnasioa eta ile-apaindegia) «bakarrik» itxi direla Lope de Vega kalean dagoen nagusien etxean: «Elkarteko kideek euren jarduerak zentroko beheko solairuan egiten segi dezakete», gaineratu dute udal-arduradunek, «zentro hori ixten ez den bitartean». Era berean, agintariak jakinarazi dute elkartegaz berba egiten segituko dutela, «orain arte legez».

Nagusien etxekoek deitoratu dute ez dutela inolako harremanik eduki agintariakaz mobilizazioak indartu zirenetik. Are gehiago, Gobernu-taldearen eta, batez ere, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren jarrera «ulertezina» dela uste dute. «Ixten ari zaizkigu banan-banan zerbitzuak eta jarduerak, pixkanaka-pixkanaka bazkideak kaleratzeko eta, azken finean, gure etxea ixteko eta eraisteko». Nagusiek diotenez, gainera, udal-agintariak egiten dabiltzana ez da euren erabakia erres-



Joan den maiatzaren 16an itxialdi mugagabea abiatu zuten nagusien etxean. HODEI TORRES

Romo Kultur Etxearen hirugarren solairua nagusien egunerokotasunerako lekuri onena ez dela deitoratu dute.

petatzea, azken egunetan egindako zerbitzuen lekualdatzea euren jarduerak egiten segitzea galarazten duelako. Modu berean, salatu dute nagusien etxea lekuz aldatzeak eraikina botatzea daukala helburu: «Berdin du Babes Ofizialeko Etxebizitzak egiteko, erresidentzia bat sortzeko edo etxebizitza kolaboratiboak sustatzeko; gura duten gauza bakarra operazio urbanistiko bat egitea da». Horren aurrean, nagusiek iragarri dute lanean segituko dutela, nagusien etxea mantentzea lortu arte: «Nagusiak gara, denbora daukagu, eroapen handikoak gara eta hau baino esperientzia gogorragoak bizi izan ditugu».

Nagusien etxeko zerbitzu denak Romo Kultur Etxera eroan gura ditu Gobernu-taldeak. Datuen arabera, gaur egungo eraikina 1.600 metro koadro eskaintzen die nagusiei, baita lorategi bat ere. Romo Kultur Etxean egokitu gura duten gunea, aldiz, 675 metro koadrokoa da eta hirugarren solairuan dago. Lekualdatzearen aurrean, gaur egungo eraikina berritzeko eskatzen dute nagusiek, baita kultur etxea eta udal-euskaltegia zen eraikinean nagusientzako zentroa egitea ere. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Ezagutu gaitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

ERANDIOGOIKOA | Gorpuzti jaiak

Udaberriaz gozatzeko auzo-festa

Eguenetik domekara arte jaietan murgilduta ibiliko dira Erandiogoikoko auzotarrak eta bisitariak, Gorpuzti jaia aitzakiatzat hartuta.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Aurten Goi-Alde dantza-taldeak irakurriko du pregoia, eguenean, 19:30etik aurrera, zortez egokitu-tako rola betez. Ostean, suzirari su eman, eta festak isiotuko dira. Goi-Aldek eta musikak presentzia handia edukiko dute jaietan. Besteak beste, entzunbide egongo dira honako hauen doinuak: Luhartz, Triki-zio eta Oxabi erromeria-taldeak, eta Tierra Kritikal musika-taldea.

Gazteen giroan txonbo egiteaz gainera, sendiek eta neska-mutilek ere edukiko dute zertaz gozatu. Bizkorrenak buruhandiak xaxatzeko aukera edukiko dute eguenean, 19:45ean; hanka-motelenek, oster, kontuz ibili beharko dute, puxikakaz jo ez ditzaten. Plan lasaia goa izango da Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasena. Erandioko Udal Euskara Zerbitzuak antolatutako ekimena barikuan izango da, 18:30ean. Zapatuan eta domekan puzgarriak edukiko dituzte neska-mutilek. Domeka, bestalde, gastronomiaren eguna izango da.

ERANDIOBUSEKO ZERBITZU BEREZIA. Udalak jakinarazi du aurten ere egongo dela Gorpuzti jaietara igotzeko eta bertatik jaisteko aukera. Bariku eta zapatuko gauetan, autobusak egongo dira ordu erdiro, 04:00etatik 08:00etara. Halere, Udalak azaldu du zerbitzu hori bertan behera utziko duela iazko gertaerak errepikatuz gero. 2017an, zenbait erabiltzailek autobuseko pieza batzuk hondatu zituzten, eta langileei irainak eta berba txarrak bota zitzaizkien. ◀



Goi-Alde dantza-taldeak protagonismo handia edukiko du jaietan. © ERANDIOKO UDALA

Egitaraua

Maiatzak 31, eguena

12:00 Meza.
12:40 Elizateko aureskua eta mokadua nagusientzat.
19:30 Pregoa irakurriko dute Goi-Alde dantza-taldeko kideek, eta txupinazoa botako dute.
19:45 Buruhandiak, eta poteoa musika-eskolako trikitilariakaz.
21:30 Herri-afaria (txartelak aurretik salgai, hamabost euroan, Dandaka jatetxean).
23:30 Erromeria: Luhartz.

Ekainak 1, barikua

18:30 Olgetan Solas familiarteko kirol-jolasak.
20:30 Goi-Alde dantza-taldeko nagusien ikuskizuna.
21:30 Elkartasun-txanpinoiak, Loiuko Danontzat elkarteak prestatuak.
23:00 Oxabi erromeria-taldea eta Aiaraldeko Sound System.

Ekainak 2, zapatua

12:30 Goi-Alde Dantza taldearen kalejira eta umeen dantza-erakustaldia.
13:30 Umeentzako puzgarriak.
15:00 Herri-bazkaria (txartelak aurretik salgai, bost euroan, Dandaka jatetxean).
17:00 Taberna Ibiltaria.
20:00 Txitxi-burruntziak banatuko dituzte.
22:00 Kontzertua: Tierra Kritikal eta Triki-zio.

Ekainak 3, domeka

10:30 Umeentzako puzgarriak.
11:00 Herriko gaztetxoaren lehen jaunartzeak eta Erandioko Musika Bandaren emanaldia.
14:30 Sukaldaritza-lehiaketa.
16:00 Kuadrillen arteko jolasak.
18:00 Sari-banaketa.
21:00 Jaiei amaiera eta kupelak hustea.



**Dan
da
ka
JATETXEA**

ERANDIO-GOIKOA 944 530 006



**GOI
KO
LAN
DA
TABERNA**

ERANDIO
GOIKOA 944 741 540



Taularatu

ALEX YGARTUA
Aktorea eta zuzendaria

Kleenex kultura, kontsumitu eta bota

Uf, zenbat jaialdi! Zenbat gauza! Sarritan entzun ditut horrelako adierazpenak azkenengo hilabeteetan. Benetan diozue gauza gehiegi antolatzen dugula? Bada, agian bai, agian gehiegi betetzen ditugu gure agendak. Gure herrietan azken urteetan hainbat jaialdi jaio dira. Kulturaren aldetik ez dago batere txarto, poztekoa izan beharko litzateke.

Niri, hala ere, hainbeste ekitaldi programatzeak zalantzak sorrazten dizkit. Gure agendak betetzeko eta udalek kultura sustatzen dutela erakusteko, nahi gabe, jaialdi horien kalitatea alde batera uzten dugulako batzuetan.

Ez dut esango bata ondo dagoela eta bestea ez, baina horren inguruan hausnarketa egin beharko genukeela uste dut. Zenbat aldiz ikusten ditugu kultur teknikariak edota kultur zinegotziak epe luzerako estrategiak diseinatzeko? «Badakit! Foodtrack + kontzertuak jarriko ditugu hemen. Baina zergatik? Honek jendea erakartzen duelako eta gainera oso hipsterra delako. Orain modan dagoena da. Ados».

Bada, agian modan egongo da, baina herriak behar duen zerbait da? Ekimen eta jaialdi bakoitza diseinatzeko orduan herriarregian duen eragina neurtzen dugu? Kultura programatzen dugunean, estrategiaren bat bilatzen ari gara? Gure inguruko kultura *kleenex* kultura bilakatzen ari gara batzuetan, hau da, kontsumitu eta bota egiten den kultura.

Afera horretan ardura guztiona da, bai kultur kudeatzaileena bai kontsumitzaileena ere. Eskuen artean daukagun erreminta potentzia handikoa da, beraz, erabili dezagun tentuz! Pierre Rey frantziar idazleak esan zuen moduan, «*La culture est continuité. La création, son contraire, est rupture*». («Kultura jarraitutasuna da. Sormena, haren aurkakoa, haustura»).

UNIBERTSITATEA | EHUKo aurre-doktoreak

Hitzarmen Kolektiboan sar ditzaten gura dute



Aurre-doktoreek protestak egin dituzte hainbat campusetan. © AURRE-DOKTOREEN ASANBLADA

Lan-baldintzen «benetako» hobekuntza eskatzeko protestan dabiltza EHUKo aurre-doktoreak. Euren lan-eskubideak ukatzeko unibertsitateak legearen anbigutasuna erabiltzen duela salatu dute.

IKER RINCON MORENO ►

Lan-baldintza duinak eskatzeko asmoz, Aurre-doktoreen Asanblada sortu zuten iaz EHUKo 300 ikerlari inguruk. Kexu dira unibertsitateak aurre-doktoreen kontratua, «aldebakarrez eta gardentasun eskasaz», praktikaldi-kontratua izatera aldatu gura izan zuela iaz, euren egoera are prekarioago bilakatuz eta kolokan ipiniz. Patxi Juaristi Bizkaiko Campuseko errektore-ordeak azaldu duenaren arabera, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako 2011ko Legean oinarritzen dira kontratu horiek, «horrek esan gura du kontratuak prestakuntzarakoak izan behar dutela; eta benetan sinesten dugu horretarako kontratuak direla».

Bere aldetik, Eneko Romero asanbladako kideak dio tesi bat egiteagatik ordaintzen diela EHUK ikerlariei, «ez formatzeagatik». Gainera, gogoratu du egindako lan zientifiko denetan unibertsitatearen izena aurkeztu behar dutela, eta hori normala dela dio. Baina horren truke EHUK langile izaera onartzea eta lan-baldintzak zein eskubideak berma-

tzea eta babestea eskatu diote unibertsitateari. Era berean, EHUK euren figura «anbigua» erabiltzen duela deitoratu du, alde batetik doktoretza-programa batean dauden ikasleak eta, bestetik, langileak direlako, euren ikerketengatik ordaintzen dietelako: «Anbiguetate juridikoa darabilte figura bi horiek nahasteko eta gure kontratua formaziozkoa dela esateko». Romerok gogoratu du aurre-doktoreen izaera juridikoa garatu behar zuten araudia ez dela garatu oraindino.

KONPONBIDE BILA. Patxi Juaristiren berbetan, arazoari irtenbidea emateko berba egin beharra dago, eta adierazi du EHUK borondate osoa duela aurre-doktoreak biltzeko. Romerok, ostera, uste du aurretik egindako bilere-tan unibertsitateak hamaika aitzakia erabili dituela bere erantzukizuna ukatzeko, «ez da negoziatorako margenik eskaintzen». Hala, azaldu du euren kontratua EHUK sinatuta daukatela, sindikatuak harremanetan ipini direla eta negoziazio kolektiboaren bidez bideratzen dabilela dena: «Unibertsitateari ez zaio interesatzen marko horretan jorratzea gaia, gure langile izaera onartu behar duelako, baina sindikatuen bidez gure egoera mahai-gainean dago». Modu berean, asanbladako kideak uste du ez dela agenda-arazo bat, «borondate-falta» baizik. Dena dela, aitortu du ez diotela uko egiten bilera bat eskatzeari, «baina horretarako EHUK bere ardura onartu behar du, eurak direlako gure enplegatzaileak».

Eskaerak

- Aurre-doktoreen kontratuari «prestakuntzarako» kategoria kendu.
- Kontratua amaitutakoan indemnizazioa bermatu.
- Soldata irakasle laguntzaileen soldatagaz berdindu, murrizketa barik.
- Ikertzaile Doktoregai Kontratatuak EHUKo lan-kontratadun irakasle eta ikertzaileen hitzarmen kolektiboan sartu.



Meñakoz hondartzako pista ez dute aurten konponduko, beheko aldean behintzat

Barrikako Meñakoz hondartzara sartzeko pista hondoratu egin zen orain dela hilabete batzuk. Bizkaiko Itsasertz Mugarteko teknikariak bertan izan ziren, egoera aztertzen. Beheko aldea konpontzea dagokio Espainiako Ingurumen Ministerioi atal horri. Itsasertz Mugarteko arduradunek azaldu dutenez, oraindino ez dute planifikatu egin beharreko obra, Espainiako behin betiko aurrekontuen zain baitabiltza. Dakitenagatik, Espainiako kontu publikoetan gaur egun ez dago sartuta Meñakozeko lanak finantzatzeko inolako partidarik. Hortaz, ezustekorik ezean, 2019ra arte itxaron beharko luke hondartzaren beheko aldeak. Goiko zatiaren eta pasealekuaren kontuak, ostera, Barrikako Udalak daroatzala baieztatu dute Itsasertz Mugarteko kideek. HIRUKAk Barrikako Udalarai galdetu dio horren inguruan, baina oraingoz ez du erantzunik jaso.

HODEI TORRES

Atzeko jesarlekua estreinatu aurretik...

* 2017an gida baimena lortzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditu dutenen artean 100 euroko erregai-txartelak zozketatu ditugu

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:



© Garbine Ubeda

Sudokua

Bete itzazu lauki zuriak HIRU berba osatzen duten hizkiez (H, I, R eta U). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.




3



Oilategian

Hona hemen lau oilo. Batek arrautza zuria errun du. Beste batek, gorritzat. Hirugarrenaren arrautza trabatuta gelditu da eta laugarrenari hautsi egin zaio. Lotu oilo bakoitza bere arrautzari.




Itzala

Zein da txita honen itzal zuzena?



Badok hamahiru

Bilatu irudi bi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira denera.



Kanpalekua

Hamar txatal horietatik bost irudi nagusiari dagozkio, baina beste bostak ez, hala diruditen arren. Zeintzuk ote dira txatal engainariak eta zeintzuk benetakoak?



Kanpalekuan, segundo bat geroago



Begira, begira!

Segundo eskas batean kontu asko gertatu dira kanpalekuko gunen honetan. Bila itzazu irudi bien arteko 17 aldeak.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko sariak irabaziko dituzu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria Txikitxoentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 1-3 urte arteko umeentzako 4 liburu zozkatuko ditugu. Etxeko txikitxoentzako sari hori irabazi gura baduzu, ekainaren 10a (domenak) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



ERTIBIL-BIZKAIA 2018 | Lau emakume uribekostar erakusketa ibiltarian

Artista gazteen sormena bultzatuz



Maiatzaren 17an aurkeztu zuten Ertibil erakusketa ibiltaria, Rekalde Aretoan. © BFA

Izaro Ieregi, Maider Gonzalo, Matxalen Oñate eta Olatz Otalora artista gazte uribekostarrek parte hartuko dute Ertibil-Bizkaia 2018 erakusketa ibiltarian. Japonian hiru hilabeteko egonaldiaz gozatzen dabiltza orain lehenengo biak, ekimenaren sari berezia lortu ostean.

KEPA UGARTE MARTIARENA ►

Daborduko Japonian daude Izaro Ieregi algortarra eta Maider Gonzalo erandioztarra; Maria Muriedas mungiarrari legez, Uribe Kostako artista gazte biei eman diete Ertibil-Bizkaia 2018 erakusketa-proiektuaren barruan banatutako sari bereziak. Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura diputatua den Lorea Bilbaok azaldutakoaren arabera, aurten, berrikuntza legez, Tokioko eta Fukuokako artista plastikoen egoitza bitan hiru hilabeteko egonaldia egitea egokitu zaie irabazleei. Horren bidez, «talentua sustatu eta sariketa nazioarte-mailan erakutsi» gura dute.

Ertibil-Bizkaia 2018 Ikus-artearen Erakusketa Ibiltaria antolatzen duten 36. aldia da aurten: Ieregi, Gonzalezegaz eta Muriedasegaz batera, indarra hartzen dabiltzan beste hamabost artistaren obrak batuko ditu. Ho-

Egutegia

Uztailaren 1era
Bilboko Rekalde Aretoa.

Uztailaren 2tik urriaren 1era
Gasteizko Montehermoso gunea.

Urriaren 1etik 22ra arte
Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Informazio gehiago:
Bizkaia.eus

rien artean daude Matxalen Oñate plentziarra eta Olatz Otalora algortarra. Erakusketa Bilboko Rekalde Aretoan bisitatu ahal izango da uztailaren 1era arte; eta ondoren, Gasteizko Montehermoso kulturgunean (uztailaren 2tik urriaren 1era arte), Durangoko Arte eta Historia Museoa (urriaren 1etik 22ra arte), Galdakaoko Torrezabal kultur etxean (urriaren 31tik azaroaren 30era arte) eta Sestaoko musika-eskolan (abenduaren 3tik 31ra arte) egingo ditu geldialdiak.

LAN BAKARTIAREN AITORTZA. Izaro Ieregi algortarrak adierazi duenez, «zure lana, nolabait, balioan ipintzen du» horrelako sari bat irabazteak. Izan ere, «estudioan bakarka egindako lanak dira normalean artistenak, eta jendartearen errekonozimendu handirik ez dutenak». Maider Gonzalo erandioztarraren berbetan, berriz, diruaz gainera izugarritzko aukera ona da Japoniara joatea. «Beste mundu bat da: esperientzia oso ona izango da eta gure lana aberastuko du». Matxalen Oñate ere bat dator Ieregigaz: «Onarpena dakar egitasmo honek. Estudioan murgilduta ordu asko pasatzen ditugu eta polita da beti jendeak zure lana baloratzen duela ikustea», azaldu du plentziarrak. Olatz Otalora algortarrantzat, «erakusketak egitearen premia batzuetan bada lanarekin aurrera egiteko arrazoia; beste batzuetan, mugimendu ikasia besterik ez. Hala ere, beti da ederra erakusketa ikusiko duen norbaitekin egindako lana konpartitzea; bakar bat eta laguna izango den arren».

Dena dela, Otalorak ñabardura bat egin du Ertibil eta halako ekimenek dakartzaten onuren inguruan. Beraren ustez, «lanaren eta publikoaren arteko distantziaren galaran, halabeharrez, ezinbestekoa da ekimen instituzionalekin harremanetan jarraitzea, egongo delako lana egiten duenaren presentzia beste guztia eragingo duen zerbait. Hori ezinbestekoa da. Beharrezkoa dena ez denarekin nahastu den arren, lana beti izango da lan egiten duenarentzat bizigai».



«Nolabait, zure lana balioan ipintzen du Ertibileko sari berezia irabazteak»

IZARO IEREGI
ALGORTA, 1987



«Esperientzia oso ona da Japoniara joatea; gure lana aberastuko du»

MAIDER GONZALO
ERANDIO, 1994



«Ekimen hauek egongo ez balira, artistek ezin izango genuke ekoiztu»

MATXALEN OÑATE
PLENTZIA, 1991



«Erakusketak egiteko premia batzuetan bada lanarekin aurrera egiteko arrazoia»

OLATZ OTALORA
ALGORTA, 1990

AINGARA

BORDATUAK EUSKAL JANTZIAK

Aurrezki Kutxa, 18
48930 Erromo · GETXO | 944 038 953
bordadosaingara.com

Ebaki bonu hau eta %10eko deskontua izango duzu gure produktuetan*

AINGARA

*bordatuak eskaintzatik kanpo
*bonua ebaki eta dendan aurkeztu

Bertoko ekoizleen txakolina



BERANGO | Ardo Eguna Domeka honetan, ekainaren 3an, hamasei ardogilek etxean egindako 325 litro txakolin banatuko dituzte Berangoko XVIII. Ardo Eguna hurreratuko diren ardozaleen artean. Eguerditik aurrera ekingo diote festari, 12:00etatik 14:30era, Sabino Arana kalean. Ohi den legez, bertokoek zein bisitariak kopa orogarria lau euroan erosteko aukera edukiko dute, eta gura duten txakolin dena doan edateko aukera. Horrez gainera, etxola bana egongo da ogia gaztagaz edo txorizoagaz dastatzeko. Txistulariek eta trikitilariek alaituko dute giroa.

Antzerkia

Ekainak 1, barikua
Ezer ez / Nada
19:30 | Herrigunea | Gortiz
Gortizko TeatrA taldeagaz. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Maiatzak 31, eguna
Siriako gerraren gainean
18:00 | Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Berbaldia eta mahai-ingurua egongo dira. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Ekainak 5, martitzena
Prevención de atropellos. Seguridad paso a paso
12:00-13:30 | Sertutxena eraikina | Gortiz
Berbaldia eta tailerra. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Ekainak 6, eguaztena
Alimentación saludable de hijos e hijas
16:30-18:30 | Ikastetxea | Gortiz
Olatz Bilbaogaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Liburu-aurkezpena
19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Amor, comida, dinero: cómo afectan las emociones en la alimentación, la alimentación en las emociones y las dos en tu economía liburua aurkeztuko du Vicente Domínguez Solerak. Gaztelaniaz. Doan.

Dantza

Ekainak 2, zapatua
Dantza Plazan
20:00 | Malakate plaza | Getxo
Udalerriko dantza-taldeen antolatuta. Doan.

Erakusketak

Ekainaren 4tik 7ra arte
Eskulanak
San Agustín plaza, 1 (Altzaga) | Erandio
Erandioko Emakumeen Elkarteak antolatuta. Sarrera, doan.

Plazan dantzatzen eta euskal musika-tresnak jotzen ikasi gura duzu?



ASTRABUDUA | Ikastaroak Ekainaren 17ra arte egongo da izena emateko aukera. Informazio gehiago: trabududantzaritaldea@gmail.com

Ekainaren 17ra arte
Tierra y mar
Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Enrike Zubiaren olio-pinturak. Sarrera, doan.

Ikastaroak

Ekainak 5, martitzena
Equipo fotográfico: uso de filtros
19:30 | Atxutegi, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclub taldeagaz. Doan.

Jaiak

Maiatzaren 31tik ekainaren 3ra arte
Gorpuzti jaiak
Erandiogoikoa | Erandio
Aldizkari 5. orrialdean aurkituko duzue jaien egitarau osoa.

Ekainaren 1etik 3ra arte
Txorierriko jaiak
Txorierri | Leioa
Egitarau osoa: Kulturleioa.com.

Ekainak 2, zapatua
Ikasturte-akabuko erakustaldia
18:30 | Antzokia | Berango
Kultur etxeko aisaldi-ikastaroetan eta emakumeen elkarte zumba-ikastaroan ibilitako lagunek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

Kirolak

Ekainak 2, zapatua
Kirol Eguna
Berango
Goizeko 10:00etan ibilaldia egingo dute, nagusien etxetik abiatuta. 12:00etan, kirol-erakustaldia, kirolgunean. Eta 18:30ean urte osoko ikastaroen erakustaldia egingo dute, Berango Antzokian.

Mobilizazioak

Ekainak 3, domeka
Euskal preso, iheslari eta deportatuen alde
13:00 | Gudarien plaza | Berango
Berangoko Amnistia Taldeak antolatuta.

Musika

Maiatzak 31, eguna
Peter Abels kantautorea
20:00 | Glass taberna (Areeta) | Getxo
Getxon Zuzenean zirkuituaren barruan. Doan.

Talka Eguna

Ekainak 2, zapatua
Itzubaltzeta/Romo



Goizean Kale-animazioa.
10:00-14:00 Azoka.
12:00 Ipuin-kontalaria.
14:00 Sukaldaritza-txapelketaren plateren aurkezpena.
15:00 Bazkaria.
17:00 Umeentzako jolasak.
17:30 Kuadrillentzako jolasak.
18:30 Euskal dantzak.
19:30 Poteo musikatua.
21:00 Radio Revolucion kontzertua.

Egunean zehar, tailerrak, capoeira eta sorpresa gehiago.

Ekainak 2 eta 3
Emakumeak Musikan jaialdia
19:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Zapatuan, Brouwer Trio hari-tresnen hirukoteak joko du; eta, domekan, Sigma Project saxofoi laukoteak. Gonbidapenak Algortako eta Itzubaltzeta/Romoko kultur etxeetan jasoko dira.

Ekainak 2, zapatua
Kantu Band
18:00 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo
Andrés Isasi Musika Eskolako Musikalia taldeak eta umeen eta ikastetxeetako abesbatzek parte hartuko dute. Sarrera, doan.

Ikuskizun bisuala eta musikala
22:30 / 23:00 | Romo Kultur Etxea | Getxo
Getxoko antzinako argazkiez osatutako *video mapping*-a proiektatuko dute eraikinean. Horrez gainera, Andrés Isasi Musika Eskolako irakasleek eta ikasleek joko dute. Sarrera, doan.

Ekainak 3, domeka
Txiki Kanta
12:00 | Biotz Alai plaza (Algorta) | Getxo
Umeen abesbatzen jaialdia egingo dute: Salamancako, Laudio, Zornotzako, Bilboko eta Getxoko zazpi taldeek abestuko dute. Doan.

Ekainak 5, martitzena
Akordeoi-entzunaldia
19:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Erandioko Musika Eskolako ikasleak. Doan.

Martitzen eta zapatuetan ESKAINTZA BEREZIA

Loiola Ander Deuna, 74 · 946 764 625 · www.irunbat.net

Ostegun, bariku eta zapatuetan 20:00etatik-23:00ak arte pizza goxo-goxoak! ...eta gero jai giroa!

SANTA EUGENIA KALEA, 13 ERROMO

Uribe Kostako gazteria saltsan!!

KAYAK | Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa

Uribe Kosta besterik ez dago

Joan den maiatzaren 19an Bizkaiko Eskolarteko Kayak Txapelketaren finala jokatu zen Bilbon. Uribe Kostak, ezinbestean, podium osoa bereganatu zuen; bertoko hiru klubak besterik ez dira lurralde-mailan lehiatzen.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Bizkaiko txapelketan Plentziako eskifaia nagusitu zen, Barrika eta Getxo atzean utzita. Barrika Piragua Taldeak antolatu zuen lehiaketako finala, Ainhoa Mokry López bertako kideak azaldu duenez. «Urtean sei txapelketa egiten dira eta hori seigarrena izan zen», dio Mokryk.

Barrika Piragua Taldean hamahiru neska-mutilek osatzen dute umeen kayak-taldea, baina Bilbon hamar egon ziren. Plentziarrek antzeko kopurua eroan zuten eta Getxoko kolo-reak zortzi gaztetxok defendatu zituzten.

Barrikoztarrak «oso pozik» geratu ziren egindako bigarren postuagaz, Mokryk baieztatu duenez: «Gure neska-mutilak asko hobetu dira denboraldiaren hasieratik hona, eta ni ere oso pozik nago eura kaz». Izan ere, 13 eta 14 urteko umeen taldeko entrenatzailea ere bada barrikoztarra. Mokryk urte bi daroaz gazteak trebatzen.

Aurretik, entrenatzaileak beste bost urte eman zituen Barrikako klubean, kayakean lehiatzen. Besteak beste, Bizkaiko txapeldunordea eta Euskadiko 23 urtez azpiko brontzea izatea lortu zuen. Taldean benjaminak eta kimuak ere badira. Denera, «neska bi soilik» dauzkatela adierazi du, penaz. Gaur egun, eskualdeko hiru taldeak mistoak dira: «Banakako kirola da, eta txapelketetak mailaka zein sexuka bereizten dira; dena den, entrenamendu denak berdinak dira denentzat». Hala, barrikoztarrek batera jarduten dute, Plentziako itsasadarrean: «Hain justu bertan klub bi gaude, Plentzia eta gu, baina bakoitza ertz batean. Bakoitzak bere ordutegian entrenatzen du eta giro ona dago klub bien artean». Entrenatzaileak onartu duenez, «lehia badago, baina osasungarria da».

MAILAZ IGOKO DIRA. Bilbon lortutako emaitzagatik ez ezik, udari begira ere «bihotz-ukituta» dabilta Barrikako gaztetxo kayaklariak. Gehienak igaroko dira beste maila batera, eta gainera, Espainiako txapelketa bitan eta beste proba batzuetan egongo dira, barbarako Asturiasko Seya ibaiko itsasadarrean



Bizkaiko podiuma alderik alde hartu zuten eskualdeko neska-mutilek. © PLENTZIA PIRAGUA TALDEA

Plentziak eta Barrikak Plentzian entrenatzen dute, itsasadarrean. Lehia osasungarria bizi dute klub biek.

lehiatzen den Minisella umeentzako jaitsiera-proban. Beste erronka bat Garesen (Nafarroa Garaian) edukiko dute. Bertan emango dute aste-akabu oso bat, egun bakoitzean txapelketa bat jokatzeko.

Udari begirako hastapen-ikastaroak daborduko hasi dituzte barrikoztarrek, baina norbaitek orain izena eman gura izanez gero trabarik ez diote ipiniko; irailera arte ematen dute aukera itsasadarrean disfrutatzeko. Neguan ere antolatzen ahalegintzen dira, «baina sasoi horretan normalean ez da talderik ateratzen, eguraldiagatik jende nahikorik ez delako animatzen».

Denboraldiari dagokionez, urrian hasi eta abuztuan amaitu ohi da, txapelketakaz, Mokryk akordura ekarri duenez. Horrenbestez, taldeak urte osoan entrenatzen du eta oporretarako aste bi besterik ez dauka. ◀



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO

IKASTOLA



KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

www.betikoikastola.eus
 Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
 94 464 23 64



PEIO SANTA CRUZ RUBIO | Errugbilari algortarra

«Partidu gehiagogaz mailari eutsi geniezaiokeen»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►


Peio Santa Cruz Rubio (Bilbo, 1997) algortarrak Brontzezko Kopa irabazi berri du euskal errugbi-selektzioagaz, Seven Centrale Paris sariketa ospetsuan. Getxo Rugby Taldean joko-zabaltzaile lanak egiten ditu, talde nagusian eta Getxo Bn.

Joan den astean Seven Centrale Paris lehiaketa jokatu zenuen. Zelangoa izan da esperientzia? Ona. Ez nuen espero, zazpiko errugbi-selektzioagaz jokatu dudana lehenengo urtea izan delako, eta dena berria izan da niretzat. Gainera, senior-talde nagusiagaz jokatu dut. Gustura ibili naiz. Kristoren maila dagoela igarri dut, baina pozik egon naiz.

Multzokako fasean, Finlandiako selektzioa, Hegoafrikako Johannesburgo taldea eta nazioarteko Seventise taldeak eduki zenituzten aurrez aurre. Zein izan zen areririk gogorre-na? Hegoafrikako taldea, zalantza barik. Nabaritzen zitzaieen ohituta daudela zazpiko errugbian jokatzen. Gainera, fisikoki abantaila dute, kristoren abiaduran mugitzen dira, eta jokatze modua ere askoz hobea da. Ez soilik gugaz alderatuta; orokorrean, lehiaren zeuden beste denakaz alderatuta, pauso bat aurrerago zeuden Johannesburgokoak.

Brontzezko Kopa irabazi zenuten, Ocean's 28-12 garaituta. Uste duzu horrek ematen duela euskal errugbiaren neurria? Esan beharra daukat talde berria eta gaztea ginela, aurretik ez genuen elkar ezagutzen. Lehenengo mailako euskal selektzioagaz joatekotan emaitzak beste batzuk izango ziren. Izan genituen lehenengo partidua nahiko zailak izan ziren, nahiko gogorak: Hegoafrikako taldeagaz eta besteakaz elkartu ginen. Bigarren egunean, berriz, dena irabazi genuen.

Pozik geratu zinen zure parte-hartzeagaz? Pentsatzen dut hobeto egiteko kapaza naizela. Halere, niretzat lehenengo espe-



Santa Cruz joan den martxoan hasi zen euskal selektzioagaz, Arroxelako (Frantzia) nazioarteko lehiaketan. HODEI TORRES

Udari eta datorren denboraldiari begira

Santa Cruzek ez du oraindino egin udarako planik: «Itxaroten nabil, ea Euskadigaz beste sariketaren batera joateko aukera izango dugun. Getxogaz ere baditugu lehiaketa batzuk, baina ez dakigu oraindino zehatz-mehatz. Iruñera joatekoak gara, sanferminetako zazpiko errugbi-sariketara, eta bestelako zazpiko lehiaketetara ere. Ez dakigu zeinera, baina baten batean parte hartuko dugu». Algortarrak argi dauka non jokatuko duen datorren denboraldian: «Getxon berriro, ohorezko bigarren mailan. Talde osoa proiektu berri bat bultzatzeko gogoz dabil».

rientzia izan da, eta alde horretatik pozik nago parte hartzeagaz, eta ahal nuena egiteagatik. Hobeto egiteko aukera neukala uste dut, baina tira.

Euskal Ligan, berriz, Getxo B taularen erdian geratu da eta lehenengo taldea jaitsi da Ohorezko Mailatik. Zelan bizi izan duzu denboraldia? Partidu gehienak lehenengo taldeagaz jokatu ditut; joan den urtean hasi nintzen. Hala, talde bietako esperientzia konta dezaket. B taldean emaitza hobeak izan genituen, joan den urtean; taldea ere, orokorrean, batuago zegoelako. Garbi dago entrenatzailea aldatu dutela eta kostatu izan dela erritmoa hartzea, baina taldeak norabidea zuzendu du. Hasieran, talde biei kostatu egin zitzaigun taldea osatzea, baina lortu dugu partidu politik ateratzea.

Denboraldi-agurrean Hernaniren aurka irabazita, zapore gozoa utzi zenuten Faduran? Bai, azkenengo partiduetan hasi ginen talde moduan jokatzen, denak helburu berberagaz, norabide berberagaz; hor konturatu ginen beste talde bat ginela. Fitxaketak direla eta, piloa kostatu zitzaigun, talde gehien aldatu zigutelako, baina denboraldi-amaieran ikusi genuen kapazak ginela liga horretan egoteko: azkenengo partidua irabazi genituen, Bartzelonaren aurka eta Hernaniren aurka. Gipuzkoarren kontra partidu polita eta dotorea egin genuen. Pena izan zen liga hor amaitzea; partidu batzuk gehiago izatekotan Ohorezko Mailari eusteko aukera izango genuen. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

944 301 500

GetxoGason Euskararekin bat! Getxo eta Berango artean

Udako Eskaintza 2018

aek udako plazer txikiak
pequeños placeres de verano

URIBE KOSTAKO AEK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

Leioa 944 64 60 63 · lamia@aeak.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxeta@aeak.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aeak.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aeak.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

URIBE KOSTA | Bertsolaritza

Eskualdeko zortzi bertsolari, Bizkaiko Udagoieneko Fasera

Joan den maiatzaren 26an, zapatuan, Bizkaiko Txapelketaren Udabarriko Fasearen azken saioa jokatu zen Abadiñon, eta horrenbestez, erabakita geratu zen zeintzuk izango diren Udagoieneko Faseko kanporaketetan parte hartuko duten 30 bertsolariak. Horietatik, zortzi Uribe Kostakoak dira: Peru Vidal Gurrutxaga (Plentzia), Arrate Illaro Etxebarria (Getxo), Imanol Uria Albizuri (Algorta), Inazio Vidal Gurrutxaga (Plentzia), Itxaso Paia Ruiz (Algorta), Unai Mendiburu Valor (Algorta), Ekaitz Larrazabal Gutierrez 'Katxo' (Getxo), eta Paule Loizaga Legarra (Sopela).



GETXO | Hondartza-garbitzaileak

Lan-hitzarmena lortu ezean, greba abiatuko dutela iragarri dute Getxoko hondartza-garbitzaileek. EH Bilduk babes osoa adierazi die.

SOPELA | Autobus-zerbitzua



Ekainaren 1etik aurrera udako ordutegi jarraitua izango du Sopolbus zerbitzuak.

GORLIZ | TAO zerbitzua

Udalerriko langabeak kontratatuko dituzte laster martxan jarriko duten TAO zerbitzuan lan egiteko eta aparkalekuak kontrolatzeko.

GORLIZ | Hondartzape erretegia

Gorlizko hondartzan lekututa dagoen Hondartzape erretegia eraistea aginduta dauka Espainiako Gobernuak, ondoren inguruko dunak berreskuratzeko.

LEIOA | Parkingak

Leioandiko aparkalekuak oraindino daude salgai

Bigarren fasean sartu da Leioako Elexalde etorbideko blokeetan aparkalekuak esleitzeko lehiaketa. Zehazki, bi eta hamar zenbakien arteko etxebizitzetara dagozkienak. Esleipen zuzena egingo da.



GETXO | Romo Kultur Etxea

Kultura-programazioari hasiera emango diote zapatuan

Zapatuan, ekainaren 2an, ikuskizun bisuala eta musikala eskainiko dute Itzubaltzeta/Romoko Santa Eugenia plazan. Ekitaldiak 30 minutu inguruko iraupena izango du eta saio bi egingo dira: 22:30ean eta 23:00etan.



AITOR SAUTU LAKA | Lutxanako arraunlari ohia eta Kaikuko entrenatzailea

«Eusko Label Ligan aurten liga bi ikusiko ditugu: iazko lau klub onenena eta gainontzekoena»



EGIZU EUSKARA ELKARTEA | Berbodromoa

«Aurtengoa antolatu dugun berbodromorik arrakastatsuena izan da. Eskerrik asko, lagunak!»

III. edizioa

Altzaga eta Astrabudua auzoetan III. Pintxo Lehiaketa antolatu du Erandioko Udalak, ekainaren lehenengo aste-akabu bietan, zapatuetan goiz eta arrastiz, eta domeketan goizetan soilik.

Gerra, Uribe Kostatik mundura



Yemengo eta beste lekuetako gerrak Uribe Kostan hasten direla salatu du mugimendu feministak, Areetako Sener enpresan.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a - 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena, Esti Garcia
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKAlagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

**Getxoko Kultur Etxeari
esker, Getxo Jazz
jaialdira hurreratzeko
sarrera bikoitzak
zozkatuko ditugu**

Uztaileko Getxoko jazz-jaialdiaz
gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura
baduzu, ekainaren 22a (barikua)
baino lehenago bidali erantzuna, zure
izen-deiturak eta harremanetarako bidea
hona: administrazioa@hiruka.eus
edo 944 911 337.



Maiatzeko saria



Udako egun beroetarako bitxikeriak,
Ad^ola online-dendari esker

**Poltsa, belarritakoak, diru-zorroa eta betaurrekoak
gordetzekoa zozkatuko ditugu.**

Zozketan parte hartzeko, bidali maiatzaren 31 (eguna) baino lehenago
zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:
administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako
euskarazko komunikazio-taldearen
bultzatzailea eta partaidea izango zara.**

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		9					2
		2	1				4
6	4					1	9
						8	6
3			7				
	5				1	3	
	2		9	7		5	
7		3			2		
5			6		8		

			5	8	2		
6							
	7	5				3	
	6				7	1	2
	1				5	6	
				4			8
			1		8	7	3
	8	2					
		9		6			

Soluzioak

Gogoan har egizu
1etik 9ra arteko
zenbaki denek
agertu behar
dutela zutabe,
ilara eta azpilauki
bakoitzean.

5	2	8	4	9	7	6	3	1
9	1	4	6	5	3	2	8	7
6	3	7	8	2	1	9	5	4
3	8	5	1	4	9	7	2	6
4	7	9	5	6	2	3	1	8
2	6	1	7	3	8	4	5	9
8	9	3	9	1	6	5	7	2
1	5	2	3	7	4	8	6	9
7	9	6	2	8	5	1	4	3

7	3	2	8	4	9	1	6	5
6	9	4	2	1	5	3	8	7
8	1	5	3	7	6	9	2	4
4	2	3	1	9	8	7	5	6
1	5	6	4	2	7	8	9	3
9	8	7	5	6	3	4	1	2
3	6	1	9	7	8	2	5	4
5	4	9	6	3	1	2	7	8
2	7	8	6	5	4	9	3	1

Hitza emanda

Haustura

«Adiós»-i «gero arte»
bat erantzutea,
neska izanda neskei
muxu ematea,
bizi ahal izateko
okupa egitea...
Haustura da nahi dugun
hori izatea!



**MAIDER
BARANANO
URIBARRI**
Algorta



Edozein gustu asetzeko moduko pizza artisauak



**BATZOKI
LEMOIZ**

Armintzako Batzokia

Atalaia, 6
ARMINTZA (LEMOIZ)
94 687 98 11

9:30ean zabaltzen dute egunero, martitzenetik domekara.

Aste-akabuetan afaltzeko ordutegia: 20:00etatik 23:30era. Udan bazkariak ere ematen dituzte, 13:30etik aurrera.



TESTUA: ESTI GARCIA CHACON ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Nork ez du hartu noizbait bainuren bat Armintzako portuan? Ate joka daukagu uda, eta horrek eguraldi ona datorrela esan gura du. Portura jaitsi baino lehen Armintzako Batzokitik pasaz gero, hamalau motatako pizzez gozatu daiteke: okela edo arraina daroatenak eta begetarianoak, besteak beste. Denak artisauak dira; tabernan bertan egiten dituzte, osagai naturalak eta hurbilekoak erabiltzen. Prezioak, hamabi eta hamasei euro bitartekoak dira.

«Batzoki» izena daukan pizza eskaini digute oraingoan. Lehen-dabizi, oreka egin eta forma eman dio sukaldariak. Jarraian, tomate freskoa gehitu eta horren gainean ipini ditu bakailaoa, ganbak eta berakatz-uxterrak. «Zaporeari indarra emateko», hiru mota-tako gaztak erabili ohi dituzte: Mozzarella, Edam eta Cheddar. Amaitzeko, hamabost minutu inguru sartu du pizza labeen. Ho-

«Batzoki» pizza

Osagaiak:

- Artisau-orea
- Tomatea
- Bakailaoa
- Ganbak
- Berakatz-uxterrak
- Hiru gazta-mota: Mozzarella, Edam eta Cheddar.

rregaz batera, edozein motako entsaladak, patata frijituak edota bertoko piperrak jateko proposatu digu Iñigo Rapado tabernako arduradunak; baita ardo zuri edo ardo beltz ondu bategaz zintzurra bustitzea ere. Eta afaria biribiltzeko, etxeko postreak dauzkate aukeran.

Armintzako Batzokiaren terraza eta jantokia nabarmendu ditu Rapadok. Azpimarratu duenez, jendea gustura egoten da terrazan, baita neguan ere, itxia delako. Lasaitasun bila daudenek, aldiz, gurago izaten dute barruan jatea. Askotariko jendea elkartzen da bertan: gazteek urtebetetzeak ospatu ohi dituzte eta jubilatuek, osterara, orain dela gutxi ezagutu dituzte pizzak, eta horiez «maitemindu» egin dira.

Tabernara hurreratzeko edozein momentu da egokia, martitzenetik domekara, goizeko 9:30etik aurrera. Aste-akabu denetan eskaintzen dituzte afariak; udan, aldiz, egunero ematen dituzte, baita bazkariak ere. ◀



olalde
cultiva tus emociones



Ostalaritzarako eta atez ateko zerbitzu pertsonalizatua egunero

info+: www.olalde-emotion.eus | T: 678 695 228

